

1. SARRERA.

Dokumentuak hurrengo helburuak ditu:

1. Unibertsitatean izapidetu daitezkeen **hitzarmen motei** buruzko informazioa ematea, kasu bakoitzerako dagokion unitate izapidegilea adierazita.
2. Errektoreordeen **eskumeneko arloen** laburpena ematea, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko ebazpenean ezarritakoaren arabera. Ebazpenak, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazten ditu.
3. Antolaketa-unitate bakoitzak hitzarmenak izapidetzean **inplikaturako kontaktuen** zerrenda ematea.
4. Idazkaritza Nagusiko Hitzarmenen Atalari dagozkion hitzarmenak **sortzeko eta izapidetzeko prozedurak** deskribatzea, eta aukera desberdinei buruzko informazio gehigarria ematea.

OHARRA: (Beren araudi espezifikoak araututako hitzarmenetarako, dagokion unitate izapidegileak jarraitu beharreko urratsak adieraziko ditu).

5. Hitzarmenak osatzeko informazioa ematea: klausuletarako **edukiak, gomendio formalak**, eta **eranskin** posibleen ereduak.
6. **Justifikazio- eta ekonomia-memoriaren** eredu normalizatua izatea.
7. Hitzarmenak **onartu, sinatu eta erregistratzeko** jarraibideak.

Dokumentu bizia izateko borondatearekin sortu da, egokitzapena eta hobekuntzari irekia. Gerta daitezkeen arau edo antolaketa aldaketetara ere egokitu beharko da